



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



GARDENTASUN GIDA

GARDENTASUNAREKIN KONPROMETITUTAKO ENTITATE PRIBATUENTZAT

**Alkatzaren eta Erakunde
Harremanen Saila** Gardentasuna eta Herritarrentzako
Arreta Zerbitzua
**Departamento
de Alcaldía y Relaciones
Institucionales** Servicio de Atención Ciudadana y
Transparencia

Teodoro Dublang Margolaría, 25
Pintor Teodoro Dublang, 25
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 16 16 16
Fax: 945 16 16 00

www.vitoria-gasteiz.org



AURKIBIDEA

AURKEZPENA

1. ARAU-ESPARRUA.

2.- ZEIN ENTITATE PRIBATUK DITUZTE BETEBEHARRAK PUBLIZITATE AKTIBOAREN ALORREAN?

3.- ZEIN INFORMAZIO ARGITARATU BEHARRA DUTE ENTITATE PRIBATUEK?

4. ZEIN EZAUGARRI IZAN BEHAR DU ARGITARATUTAKO INFORMAZIOAK?

5. ZEIN EUSKARRITAN ARGITARATU DAITEKE INFORMAZIOA?

6. HARREMANETARAKO DATUAK

7. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK

ERANSKINA. KASU PRAKTIKOA



AURKEZPENA

Gardentasunak esan nahi du **entitate baten kudeaketarekin** lotutako informazioa herritarren eskura jartzea, entitate **publikoa** nahiz **pribatua** izan.

Bi motatakoa izan daiteke gardentasuna: aktiboa eta pasiboa. Gardentasun aktiboa da entitateak berak sustatutakoa, zer egiten duen, zergatik eta nola azaltzen duen informazioa argitaratuz. "**Publizitate aktiboa**" deitzen zaio horri.

Gardentasun pasiboa da egindako informazio-kontsultei azkar eta zehatz erantzutea. "**Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea**" deitzen zaio horri.

Agiri honen bidez, Gasteizko Udalaren laguntzak eta dirulaguntzak jasotzen dituzten Gasteizko elkarte-mugimenduko entitate pribatuei **erreferentzia-marko** bat eskaini nahi zaie, publizitate aktiboaren alorrean dituzten betebeharrak ezagutu eta haien intereseko taldeekin gardentasunez jokatzeko euskarri bat izan dezaten.

Bide batez, beren kudeaketan gardentasunarekin konpromisoa duten entitate pribatu guztientzat baliagarria izan nahi du gidak.

1. ARAU-ESPARRUA.

19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa, eta **2/2016 Legea**, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, mugari garrantzitsua izan ziren administrazio publikoetan gardentasuna sustatzeko.

Herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea zutela aitortu zuten lege horiek, eta **administrazio publikoei** gardentasun aktibo eta pasiboaren **betebehar** zehatzak ezarri. Era berean, gardentasun aktiboaren **betebeharrak** administrazio publikoetatik sarrerek jasotzen dituzten **entitate pribatuetara** hedatu ziren, herritarren interesekotzat jo baitzen "**nori**" eta "**zertarako**" ematen zaizkien baliabide publikoak.



2. ZEIN ENTITATE PRIBATUK DITUZTE BETEBEHARRAK PUBLIZITATE AKTIBOAREN ALORREAN?

Aurrekontu ekitaldi batean laguntza eta dirulaguntza publikoak jaso dituzten entitate pribatuek publizitate aktiboaren betebeharrak dituzte, baldin eta:

- Laguntza eta dirulaguntzetan jasotako zenbateko osoa **100.000 euro edo gehiago** bada.*
- Jasotako zenbateko osoa **5.000 euro edo gehiago bada**, eta dirulaguntza eman zitzaion ekitaldi ekonomiko itxian izandako **urteko diru-sarreraren % 40** bada gutxienez.

** 2/2016 Legea. VI. titulua - I. kapitulua, 49. art.*

3. ZEIN INFORMAZIO ARGITARATU BEHARRA DUTE ENTITATE PRIBATUEK?

Entitate pribatuek publizitate aktiboaren alorrean dituzten betebeharrak 3 ataletan egituratzen dira:

1. Antolakundeari buruzko informazioa.

Entitatea deskribatzeko atala: xedea eta helburuak, eta nola antolatzen den.

Hauei buruzko informazioa sartzen da:

- Izaera juridikoa. Eratze-data. Erregistro zk. Helbide soziala.
- Zuzendaritza-organoen eraketa eta kideak (ardurako karguetan dauden pertsonak identifikatuta).
- Estatutuak eta eraketa printzipioei buruzko bestelako agiriak: kode etikoa, jokabide-kodea, barne araudia...
- Xedearen eta helburuen deskribapena.
- Jarduera-eremuen deskribapena.
- Talde onuradunen deskribapena.

2. Ekonomiarekin eta finantzazioarekin lotutako informazioa.

Alderdi hauei buruzko informazioa jasoko du atalak:

- Urteko kontuak.
- Jardueren oroitidazkia.



3. Administrazio publikoekiko harremani buruzko informazioa.

- Jasotako dirulaguntza eta laguntza publikoak, xedea eta helburua, esleitutako zenbatekoa eta jardueraren onuradun izan diren pertsonak edo taldea zehaztuta.
- Sinatutako **hitzarmenak**, sinatzaileak, xedea, iraupena eta betebeharrak ekonomikoak zehaztuta.
- Administrazio publikoekiko **kontraturik** bada, xedea, iraupena, lehia-saria, esleipenaren zenbatekoa eta aldakuntzak zehaztuko dira.

Publizitate aktiboak ez ditu ordeztuko

- laguntzak eta dirulaguntzak, hitzarmenak eta kontratuak administrazio eskudunaren aurrean justifikatzeko ezarritako dauden kontrol-bitartekoak, ezta administrazioek egin beharra duten publizitate aktiboa ere.

Administrazio publikoen publizitate aktiboaren betebeharrak, berriz, hauek dira:

- "Sinatutako hitzarmenen zerrenda" argitaratzea, "xehetasun hauekin: sinatzaileak, xedea, iraupena eta aldaketak, baita adostutako prestazioak eta, halakorik badago, betebeharrak ekonomikoak ere". (1)
- "Emandako dirulaguntza eta laguntza publikoak" argitaratzea, "xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak." (2)
- Dirulaguntzen plan estrategikoa lantzea. (3)
- Dirulaguntzak estatu mailako datu-base baten bidez argitaratzea, zeinak deialdiei eta emandako dirulaguntza guztiei buruz informatzen baitu. (4)

(1)(2) Gardentasun legeak (19/2013 eta 2/2016) (<http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>).

(3)(4) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, 2017-6-28ko aldakuntza. (<http://www.infosubvenciones.es>)



Gardentasunaren xedea da konfiantza, berme eta egiatasun harreman bat ezartzea administrazioen, entitate pribatuen eta gizartearen artean; azken batean, baliabide publikoen kudeaketa hobetzea (1. irudia)

GARDENTASUNA APLIKATZEAREN ABANTAILA NAGUSIAK	
SINESGARRITASUNA	Antolakundeek sinesgarritasun handiagoa dute herritar eta interes-taldean aurrean.
KONFIANTZA	Gizarte legitimitasun handiagoa ematen du, eta erakundeekiko konfiantza giroa sortzen laguntzen.
KONTROLA	Gizarteari kontu ematea ahalbidetzen du.
PARTE-HARTZEA	Informazioa argia eta zehatza izanez gero, herritarrek arlo publikoaren kudeaketan har dezakete parte.
KUDEAKETA HOBEA	Gardentasunaren kulturatik aritzeak kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen ditu.

1. irudia. Gardentasuna aplikatzearen abantailak.

4. ZEIN EZAUGARRI IZAN BEHAR DU ARGITARATUTAKO INFORMAZIOAK?

Argitaratzen den informazioak ezaugarri hauek bete behar ditu:

- **Eguneratuta egotea.** Hitzarmen bat sinatu, kontratu bat egin edo laguntza zein dirulaguntza bat jaso den ekitaldi ekonomikoa itxi ondoren argitaratzea gomendatzen da, edo horiek justifikatu diren ekitaldia ixtean, kasua bada.
- Datuen babesari buruzko legedia errespetatzea: argitaratu nahi den dokumentazioak bereziki babestutako datuak baditu, horiek anonimo mantendu behar dira, baita disoziatu ere.
- **Argi** egituratuta egotea eta **benetakoa**, objektiboa eta erraz ulertzeko modukoa izatea.
- **Formatuari** dagokionez, informazioa dokumentu bakar batean bildu daiteke, txosten gisa, edo hainbat dokumentutan.

Formatu estandarra duten dokumentuak erabiltzea gomendatzen da, hau da, entitatearen lan-prozeduretan erabili ohi direnak.

- **Erraz eskuratzeko modukoak** izatea, argitaratutako informazioa edonork eskuratzetik izan dezan. Horrekin lotuta, informazioa argitaratuta dagoen gunearen (web-orria, bloga...) helbide elektronikoa iragarki-tauletan eta paperezko bitartekoetan ere jakinaraztea gomendatzen da.



Nolanahi ere, entitate bakoitzarena da argitaratutako informazioaren gaineko **erantzukizuna**, baita legeak ezarritako betebeharrak betetzearen erantzukizuna ere.

Estatuan [Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua](#) arduratzen da araua betetzen den zaintzeaz, eta arau-hausterik bada horren inguruko ebazpenak ematerik izango du, 19/2013 Legean xedatzen denari jarraituz. EAEn, [Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea](#) da gardentasuna kontrolatzeko berariazko organoa.

5. NON ARGITARATU BEHAR DA INFORMAZIOA?

Informazioak **entitatearen beraren web-atarian edo blogean** egon beharko du eskuragarri.

Hala ere, irabazi asmorik gabeko erakundeak direnean, gizarte-, kultura-, hizkuntza- ingurumen-intereseko helburuak baino ez dituztenean, eta **50.000 eurotik beherako aurrekontua** dutenean, ekarpen edo laguntza gehienek iturburu diren toki-erakundeetako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte informazioa argitaratzeko.*

** 2/2016 Legea. VI. titulua - I. kapitulua (49. art.).*

Horrekin lotuta, Gasteizko Udalak tresna digital eskuragarri eta doakoa eskaintzen die Gasteizko elkarte-mugimenduko entitate pribatuei, gardentasun legeak dakartzan betebeharrak betetzerik izan dezaten:

<http://elkartek.info/>

Elkartek info atariak, [Saregunek](#) garatuak, helburu hauek ditu:

- Hiriko elkarten arteko komunikazioa eta lankidetzaren erraztea, baita elkarten eta beste entitate publiko eta pribatuen artekoa ere.
- Elkarte-mugimenduari buruzko informazio espezializatua eskaintzea.
- Herritarren sarbidea sustatzea, eta elkarteekin harremanetan jartzea.

[Elkartek.info](#) atariak funtzionamendu autonomoa du:

atarian alta ematea eskatu ondoren, elkarteei erabiltzaile/pasahitz bat ematen zaie, atarian sartu eta elkartearen fitxan egoki irizten dioten guztia argitaratu dezaten; gardentasunarekin lotutako informaziorako atal bat ere bada.



Gasteizko Udalak, berriz, bere gardentasun-atarian (www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna) jakinarazten du non eta nola argitaratu ditzaketen Gasteizko elkarteek publizitate aktiboaren betebeharrak.

6. HARREMANETARAKO DATUAK

Saregunerekiko kontaktua, **Elkarteak.info** atariarekin lotutako informaziorako:
info@elkarteak.info

Gasteizko Udalarekiko kontaktua, **zalantzak argitzeko edo kontsultak eta iradokizunak egiteko:**
transparencia@vitoria-gasteiz.org



7. BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK

- [Gasteizko Udalaren gardentasun eta gobernu irekiaren ataria](#) -

- Gasteizko elkarte-mugimenduaren ataria. Elkartek info.
<http://elkartek.info/>

- Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren gida erraza: Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasuna, hiritarren parte hartzea eta gobernu ona arautzen ditu horrek.
https://irekia.araba.eus/gardentasunaren_foru_araua

- Gardentasun Gida. Bizkaiko Foru Aldundia.
http://gardentasuna.bizkaia.eus/eu/erakunde_pribatuak

- Kataluniako Generalitat-en gardentasun gidak.
<http://governobert.gencat.cat/ca/que-es/Publicacions/guies-de-transparencia/>



ERANSKINA. Alegiazko kasu praktikoa

“Asociación de mujeres por la diversidad” izeneko elkarteak Gasteizko Udalaren bi dirulaguntza jaso zituen 2018an.

2018ko otsailean, Gizarte Politiken Sailak informazio, sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak, eta elkartasuna eta boluntariotza sustatzen duten gizarte sustapeneko ekintzak diruz laguntzeko deialdia ebatzi zuen.

Aipatutako elkarteari 700 euro esleitu zitzaizkion. Dirulaguntza 2018ko martxoan ordaindu zen, eta justifikatzeko epea 2018ko urrian bukatu zen.

2018ko ekainean, berdintasun Zerbitzuak genero berdintasunaren alorreko jarduerak eta programak garatzeko diru-laguntzen deialdia ebatzi zuen, eta elkarteari 8.000 euro esleitu zitzaizkion; 2018ko irailean ordaindu zen kopuru hori, eta 2019ko ekainean amaituko da justifikatzeko epea.

Entitatearen urteko aurrekontua 20.000 euro da, eta izaera sozialeko helburuak ditu.

Elkarteak horren berri emateko betebeharra du, jasotako kopurua 8.700 euro baita, hau da, elkartearen urteko aurrekontuaren % 43,5.

2018ko ekitaldia ixtearekin batera, elkarteak urte horretan jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa argitaratu zuen.

2019ko ekitaldia ixtean, berriz, urte horretan justifikatutako dirulaguntzari buruzko informazioa argitaratuko du, baita jasotakoei buruzkoa, kasua bada.

GARDENTASUN TXOSTENAREN EREDUA - 2018. urtea

“Asociación mujeres por la diversidad” elkarteak Gasteizko Udalaren bi dirulaguntza jaso zituen 2018ko ekitaldian, 8.700 euro orotara, hau da, urteko diru-sarreraren (20.000 euro) % 43,5.

1. Antolakundeari buruzko informazioa.

"Asociación mujeres por la diversidad" elkarteak irabazteko xederik gabea da; 2010ean sortu zen, eta haren Estatutuak EAEko Elkarten Erregistro Nagusian daude erregistratuta, 2010eko urtarrilaren 10eko dataz eta XXX zenbakiaz.

Helburu hauek ditu: zentzumen-ezintasunen bat (gorreria edo hipoakusia, itsutasuna edo ikusmen eskasia) duten emakumeei hirian batetik bestera joaten laguntzea, ekitaldien agendan parte hartzerik izan dezaten, eta jarduera inklusiboak antolatzea, sustapen helburuekin eta talde horren alde.

Elkarteak 40 bazkide ditu, eta 25 laguntzaile boluntario; hauek osatzen dute zuzendaritza-batzordea:



Idazkaria: M. Fernández / Diruzaina: J. Aguirre / Lehendakaria: A. López

2. Ekonomiarekin eta aurrekontuarekin lotutako informazioa.

2018ko ekitaldiko negozio-bolumena, jasotako diru-sarrerera guztiak direla ulertuta, 20.000 euro izan da.

2018an bi proiektu garatu dira Gasteizko Udalak emandako bi dirulaguntzaren bitartez; horiei esker, 32 emakumeri lagundu zieten 45 jardueretara joaten, osasunari eta denbora libreari buruzko mintegi ziklo bat antolatu zen, zeinean 300 pertsonak hartu baitzuten parte, eta 5 boluntario erakarri zituzten.

(Eranskin gisa argitaratzekoak: 2018ko diru-sarrerera eta gastuen balantzea, eta 2018ko jardueren oroitidazkia).

3. Administrazio publikoarekiko harremanei buruzko informazioa.

Administrazioak 2018an emandako dirulaguntzak zehazten dira ondoren.

Deialdia: Informazio, sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak, bai eta elkartasuna eta boluntariora sustatzen duten gizarte sustapeneko ekintzak ere.

Erakundea: Gasteizko Udala.

Proiektua: hiriko ekitaldietan parte hartzea erraztea.

Zenbatekoa: 700 euro.

Ematea: 2018ko martxoa.

Justifikazioa: 2018ko urria.

Onuradunak: 32.

(Eranskin gisa argitaratzekoak: proiektuaren oroitidazkia eta justifikazioa)

Deialdia: Genero-berdintasunaren alorreko jarduerak eta programak garatzea.

Erakundea: Gasteizko Udala.

Proiektua: "Osasuna eta denbora librea" mintegi zikloa.

Zenbatekoa: 8.000 euro.

Ematea: 2018ko iraila.

Justifikazioa: 2019ko ekaina.

Onuradunak: 300.

(Eranskin gisa argitaratzekoak: proiektuaren oroitidazkia eta justifikazioa)

Txostenaren data: 2019/3/15

Izp.: M. Fernández